



ispiluarena

iban
zaldua



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IBAN ZALDUA

ispiluarena

[Ipuin hau Literaturia 2017ko “Literatura, ispilu ala leiho?” solasaldirako prestatu zuen Iban Zalduak; emanaldian, orobat, Miren Gorrotxategik parte hartu zuen, eta, gidari bezala, Mikel Ayerbe kritikariak]

Ispiluarena

Etxean bainugela bakar bat izateak nerabeei buruzko informazio asko jasotzeko aukera ematen du; baten ordean etxean bi izan bagenu, nekez jakingo nukeen gure alabak horrenbeste denbora ematen duela ispiluaren aurrean. Lauzpabost alditan, barruan inor ote zegoen ohartu gabe atea zabaldu eta, berak oihu batean handik bota aurretik, zer egiten ari zen ikusi ahal izan nuen; izan ere, sekula ez nuen harrapatu komunean eserita edo egoera “larriren” batean, ispilura begira baizik, ilea atontzen edo hazpegiak xeheki ikertzen. Atarian daukagun gorputz osokoan ere maiz aurkitzen dut bere burua aztertzen, kalera irten aurreko une labur edo luzatuetan. Nerabegaroko apetak terriblerak izan daitezke, bai.

“Guk gaztetan ez genuen ispiluarekiko grina hori, ezta?”, komentatzen diot emazteari, eta berak sorbaldak goratzen ditu arinki, honako hau adierazi nahian: “Irudiaren gorazarrearen eta *selfie*aren aroko gizarte nartzisistaren egotismorako jite saihestezinaren keriak barruraino dauzkagu etxean sartuta”. Edo oso antzeko zerbait, nire andreak abilezia hori baitu, keinu bakar batez asko esatekoa.

“Orain pena ematen dit ispilu guztiak garaiz kendu ez izanak, etxe honetara etorri ginenean”, esan diot emazteari, gaia atera den beste batean, eta berak begiak eta bekainak eskuin aldera goratu ditu pixka bat, esanez bezala: “Beti geroko gerotan geratzen zara, eta inportanteak diren gauzak ez

dituzu sekula garaiz burutzen”. Eta nik erantzun diezaioket nekez jakin genezakeela alaba horrelakoa aterako zitzagunik, eta, edonola ere, auskalo nola hartuko zuketan etxejabeek halako erabaki bat; azken finean pisua altzariekin alokatu ziguten eta agian haserretu zitezkeen ganbarara gauza gehiago igo izan bagenitu. Emazteak besoak gurutzatu ditu hori entzundakoan, eta nik zehazki interpretatu dut adierazi nahi izan didana: “Gurutzeekin eta iruditeria erlijioso guztiarekin horixe egin genuen ba. Gertatzen dena da alfer bat zarela”.

Alabarekin hitz egin beharko dugu, edo, hobeto esanda, nik hitz egin beharko dut, ni naizenez, gauzak behar denean ez egiteagatik, egungo egoeraren balizko erantzulea, nire andreak oraintxe bertan azpimarratu duen bezala, bere eskuineko eskuko hatz erakuslearekin nigana seinalatuz. Zeren eta baztertuta baitago ispiluak bat-batean kentzearena: emazteak familia-komunikazioaren garrantziaren inguruan teoria sendoak ditu, eta gauzak elkarrizketaren bidez konpontzen direla uste du, are nerabeen kontuak ere, edo horiek bereziki. “Baina nola ulertaraziko diogu”, galdetu diot nik, “ispilura begira eta begira aritzeagatik, ahalegin guztiak eginda ere, ez duela sekula bere irudia han azaleratuko? Inoiz ez duela gure endako inork bere irudia ispilu batean islatuta ikusi, gizaldi eta gizaldietan zehar?”.

Erosketako poltsa astindu du emazteak, aditzera emanaz astia izango dudala pentsatzeko zer esango diodan alabari, bera odol-bankura jaisten den bitartean. “Ez hartu hainbeste plasma-poltsa”, abisatu diot, “alaba kokoteraino dago gauero hori edukitzeaz afaltzeko. Eta ea AB negatibokoren bat prezio onean eskuratu dezakezun; batzuetan eskaintzak egoten dira. Pixka bat aldatzearren, badakizu”.